

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

KULTURA
KIROLA
HAUR ETA GAZTERIA

✓ **PROPOSAMENA**

Haur, gaztetxo eta gurasoak elkarrekin egiteko hainbat ekintza yoga, dantza desberdinak, kirolak...

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

Lehenik aztertu dugu udalak momentu honetan familiei egiten dien eskaintza, baita herriko eragile eta elkarteek egiten dutena ere. Horiek aztertu ostean, familian ekintzak egiteko hainbat aukera badaudela ikusi da. Aukera hauek, mota ezberdinekoak dira eta herriko familia ugariaren interesekoak izan daitezke. Beraz, dagoneko badago nahiko eskaintza familia giroko ekintzak egiteko herrian.

Gainera, haur eta nerabeek euren familiekin egiteko denbora behar dute, kalitatezkoa eta kantitatean. Familian egiteko aukerak gero eta urriagoak direnez, ongi aprobetxatu beharrekoak dira. Hernaniko herriak eta kokatua dagoen inguruneak familian ekintza ugari egiteko aukera ematen du, bai antolatuak eta baita antolatu gabekoak. Doakoak edo kostu txikia suposatzen duten ekintzak ere ugariak dira.

Hau guztia kontuan izanik ere, interesgarria da familiei zuzendutako eskaintza osagarri bat egitea. Zergatik? Hernaniko familia ezberdinen arteko harreman berriak sortzeko, beste familien errealitateak eta dinamikak ezagutzeko, familia bakoitzak ere bere familia dinamika aberasteko, herriko elkarteek egiten duten eskaintza familiei zabaltzeko...

Horregatik, eskaintza berri hau egiterakoan kontuan izango ditugu ondorengo irizpideak:

- Herriko dinamika eta bertarako eragileen eskaintzak izango du lehentasuna, udalak ez du bikoiztuko eskaintzarik.
- Haur eta nerabeen beharrekiko koherenteak izango dira.
- Familia barruko dinamika aberastu eta familien arteko topaketa sustatuko dute.
- Herriko familien egoera anitza kontuan hartuko da.
- Ludikotasuna izango du ardatz.

Aurreikusten den eskaintza:

-Yoga familian, 2018-2019ko Biteri kultur etxeke ikastaroen eskaintzaren barruan sartuko da. Urte osoko ikastaroa familientzat izango da.

-Sormena familian lantzeko saioak larunbatetan.

-Familian kirola egiteko ekintzak asteburu eta opor garaietan. Aurreikusten dira naturarekin harremana duten ekintzak: piragua, irristaketa, eskalada, arrauna batik bat.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

Biteri kultur etxean eskainiko den yoga familian ikastaroa kultura sailak hartuko du bere gain.

Sormena familian izeneko saioek aurreikusten da balioko duela: 8.000€

Natur ekintzak familian saioak izango duen balioa: 5.000€

Guztira beraz, 13.000€

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

Yoga familiar ikasturteko eskaintza izango da asteazkenero 17:00 etatik 18:00 etara.

Sormena familiar bi aldietan egitea proposatzen da:

- Otsailetik apirilera bi orduko saioak 10-15 ordu denera
- Urritik abendura bi orduko saioak 10-15 ordu denera

Natur ekintzak familiar proposatzen da urte osoko eskaintza izatea, batik bat, asteburu eta opor garaira bideratua, aurrerago zehaztuko lirateke garai egokienak ekintza ezberdinak egiteko.

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

Familia-eskaintza egiten duten sailak: Zerbitzu Sozialak, Kultura, Kirola, Euskara eta Hezkuntza, Politika Sozialak

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

Programa gisa ulertu daiteke, beraz, urtetik urtera errepikatzea izan daiteke, beti ere baloratu eta egokituz. 3 urteetan zehar garatuko daiteke.

Aurrekontuen atalei dagokienez:

- Familia yogan Kultura Sailak hartuko du bere gain.
- Sormena familiar Haur eta Gazteria Arloko partidan joango da: Gazteria proiektuak atalean.
- Natur ekintzak familiar, Jarduera Fisikoa eta Kirola Sailean kokatuko da.

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Balorazio tekniko ALDEKOA da eta prozesuan aurrera egin dezan proposatzen dugu.